

Odol-ilargiaren alaba



Kepa Iribar

Adin gomendatua: 12-16 urte

Bilduma: Perzebal, 52

Formatua: 150 x 230 mm

Orrialdeak: 312

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2026-06-11

ISBN paperezko edizioa: 978-84-1093-126-8

Materia: Gazte literatura

Salmenta prezioa

20,00 €



16 urteko neskatoa da Liv. Zoriontsu bizi da familiarekin Modron basoan. Bertako zuhaitzak ditu babesgune, eta handik kanpoko arazoak arrotz zaizkio. Baina gau batean, arazo horiek etxeko atariraino iritsi zaizkio, ihes egin behar du, eta bere bizitzako abenturarik handiena biziko du.

Bidaia horretan ezagutuko ditu laguntasuna, beldurra, ausardia, maitasuna, eta baita bere burua ere.

Bidelagun izango ditu Maeve atsoa, Shir-Tar gerlaria, Lileath printzesa, Anwar basamortuko beduinoa...

Bidaia ikaragarria izango da Ranjartian izeneko lurraldean zehar, hura menderaturik daukan Magmul agintari zitala hiltzea beste helbururik gabe, Odol-ilargiaren egunean.

FANTASIA - ABENTURA - PROFEZIA - GAZTEAK

Kepa Iribar



Kepa Iribar Elizegi (Getaria, 1975)

Kazetaria ogibidez, Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi zuen Informazioen Zientziak. Euskadi Irratian aritzen da kazetari, kiroletako sailean.

2022an kaleratu zuen bere lehen eleberria, *72 ordu*, eta 2025ean bigarrena, *Erleen azken ziztada*, biak ere «Uzta Gorria» sailean. Orain argitaratzen dugun *Odol-ilargiaren alaba* fantasiazko lehen eleberria du.